



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko ekainaren 30a

75. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egin (2. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzearen gaineko azterlanari buruzko lan-taldearen txostena. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak onetsia (20. or.).
- Euskararen normalizaziorako lan-talde bat sortzeko proposamena. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (22. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Burlatako Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Aurkibidea

Txosten exekutiboa edo laburpena (2. or.).

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. Iritzia (6. or.).
 - IV.1. Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra (6. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
 - IV.3. 2008ko abenduaren 31ko finantza-egoera (6. or.).
 - IV.4. 2006ko txostenaren gomendioen jarraitzea (7. or.).
- V. Gerora gertatutakoak (7. or.).
- VI. 2008ko kontu orokor bateratuaren laburpena (8. or.).
 - VI.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera, 2008 ekitaldia (8. or.).
 - VI.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (9. or.).
 - VI.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (9. or.).
 - VI.4. Egoera-balantze bateratua (10. or.).
- VII. Iruzkina, konklusioak eta gomendioak (11. or.).

- VII.1. Alderdi orokorrak (11. or.).
- VII.2. Langileria (11. or.).
- VII.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (11. or.).
- VII.4. Inbertsioak (12. or.).
- VII.5. Zergak, tasak eta prezio publikoak (13. or.).
- VII.6. Inbentarioa - Ibilgetua (14. or.).
- VII.7. Kontingentziak (14. or.).
- VII.8. Erakunde autonomiadunak (14. or.).
- VII.9. Hirigintza (14. or.).
- VII.10. Burlada SL hirigintzako udal-sozietatea (15. or.).
- VII.11. Ripaberri Desarrollo Urbano, SL sozietatea (16. or.).

Burlatako Udaleko alkate-jaunak behin-behineko txostenari egin dizkion alegazioak (16. or.).

Comptos Ganbararen erantzuna Burlatako Udaleko alkateak aurkeztu zituen alegazioei (19. or.).

ERANSKINA: 2008ko ekitaldiko kontuen oroitza edo memoria

(Oharra: Aipatutako eranskinak foru-parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta web helbide honetan:

www.cfnavarra.es/camara.comptos). www.cfnavarra.es/camara.comptos).

TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA

2009ko Jarduketa Programak adierazten duenari jarraituz, Burlatako Udalak 2008 ekitaldian izan duen jardueraren fiskalizazioa egin du Comptos Ganbera honek.

Burlatako udalerrriak, 2008ko urtarrilaren 1ean, 18.504 biztanle zituen.

Udalak bi erakunde autonomiadun ditu zerbitzu publikoak emateko, Kirolen Udal Patronatua eta Kulturaren eta Festen Udal Patronatua, eta, horiez gain, Burlada SL hirigintzako udal-sozietatearen kapital osoa du. Halaber, ehuneko 51ko partaide-tza du Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatean —2008. urtean eratutako sozietate mistoan—.

Datu ekonomiko adierazgarrienak dira:

- Hasierako aurrekontu bateratua 18,2 milioi eurokoa da, eta behin betikoa, 21,3 milioi eurokoa. Gastuen betetze-maila %78koa da, eta diru-sarrerena, %81ekoa.

- Guztizko gastuak 16,5 milioi eurokoak dira, eta horietatik, 8,3 milioi euro langileak ordaintzeko erabili ziren, 3,8 milioi gastu arruntak eta zerbitzuak ordaintzeko, eta inbertsioetarako erabili ziren 2,2 milioi euro.

- Ekitaldian, 17,2 milioi euroko diru-sarrerak aitortu dira. Zerga, tasa eta beste diru-sarreraren zenbatekoa 5,7 milioi eurokoa izan da, eta zenbateko hori 2007koa baino ehuneko 12 txikiagoa izan da, nahiz eta aurrekontu bateratuak aurreikusten zuen ehuneko 7ko igoera izan zuela. Transferentzia arruntak eta kapitalekoak 10,6 milioi eurokoak izan dira, 7,2 eta 3,4 milioi eurokoak hurrenez hurren. Horien artean, nabarmenezkoa da 2,5 milioi euroko diru-sarrera bat, Burlada SL udalaren hirigintza-sozietaterik jasotako konturako dibidendu baten ondorioz.

- Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza doituak 1,6 euroko defizita ageri du.

- Diruzaintzako gerakin osoa eta gastu orokorretarako gerakina negatiboak dira, 684.278 euro eta 4 milioi euroko zenbatekoetan, hurrenez hurren. Azken adierazle hori negatiboa da 2003 ekitalditik, eta, 2008 ekitaldian, ehuneko 83 igo da 2007 ekitaldiarekiko.

- Epe luzerako zorra, 2008ko abenduaren 31n, 4,4 milioi eurokoa da. Data horretarako, Udalak, diruzaintzako gabeziak ikusita, 703.346 euro erabiliak zituen 2008an urtebetez berritu zen kreditu-polizatik, eta azken horren zenbateko erabilgarria 2 milioi eurora arte igo zuen.

- Zorpetze-maila, 2008 ekitaldian, ehuneko 8,45ekoa izan da, eta, ondorioz, nabarmen gaintu du bere zorpetze-muga, ehuneko 0,64koa.

Fiskalizazio-lan hori egin ondoren, Ganbera honek uste du Burlatako Udalaren 2008rako Kontu Orokorrak behar bezala adierazten duela aurrekontuaren betetze-maila eta udalaren ondare-ego-

era; hala ere, ondasunen inbentarioa eguneratzeko dagoela adierazi behar da. Legezketasun-prinzipioa betetzen den ala ez aztertu ondoren, ikusi da udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioak, oro har, bete egiten duela indarreko legedia; hala ere, bada salbuespen bat, ez baita behar bezala betetzen lurzoruaren udal-ondarearen araubidea.

Azkenik, Burlatako Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioari buruz, Comptos Ganbera honek aurreko txostenetan adierazi duena errepikatatu behar du; izan ere, zorpetze-maila handia du, 2003 ekitalditik aurrera negatiboa da gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, eta, ekitaldi horretatik aurrera, igo egin da kopuru negatibo hori, harik eta 4 milioi eurotara iritsi arte 2008ko abenduaren 31n. Horrez gain, likidez arazoak ditu eta, epe motzean bederen, zalantzarria da gastu orokorretarako baliabideak sortzeko gaitasuna izan ote duen. Hori ikusita, premiazkoa eta presazkoa da finantza-bideragarritasunari buruzko plan bat egitea hurrengo ekitaldietarako.

Txostenak, bestalde, Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatearen eraketa-prozesua aztertzen du. 2008ko ekainean eratu zen sozietatea, eta haren partaide da Burlatako hirigintzako udal-sozietatea, kapitalaren ehuneko 49 kontrolatzen duen bazkide pribatu batekin batera. Azken hori hautatzeko, hirigintza-sozietateak deialdi bat egin zuen, eta hautaketa horrek berekin zekarren, inplizituki, etxebizitzaren sustapen bat egiteko 4 lurzatiaren eskualdaketa. Hala ere, 2007ko txostenean adierazi zen moduan, ez dira bete toki-administratiboko eta kontratu publikoetako foru-legeen zenbait xedapen.

2008 ekitaldiaren amaiera aldera, Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietateak izapideak abiarazi zituen lurzati horietan eraikuntza-lanak egiteko kontratua lehiaketara ateratzeko. Lehiaketaren aurrekontua 20 milioi eurokoa zen (BEZ gabe), eta haren esleipendun izan zen, 2009 ekitaldian, bazkide pribatua, 19.976.814 euroko zenbatekoagatik (BEZ gabe). Hura izan zen lehiaketara aurkeztu zen eskaintza bakarra.

Halaber, adierazten da 2009 ekitaldian deialdi bat argitaratu dela beste sozietate misto bat eratzeko. Sozietate horren xedea da Burlatako Udalak Burlada SL hirigintzako udal-sozietateari doan laga dizkion Ripagainako hiru lurzatiaren etxebizitzak sustatzea, garatzea eta eraikitzea, dagokion prozedura bete ondoren.

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Burlatako Udalaren eta bere bi erakun-

de autonomiadunen 2008ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du. Kirol Patronatua eta Kultura patronatua dira bi erakunde autonomiadun horiek.

Burlatako Udalak 18.504 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomiadunekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2008ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2008-12-31n
Udala	14.870.080,14	15.428.898,34	140
Kirol Patronatua	2.025.438,82	2.081.797,34	34
Kultura Patronatua	855.878,67	911.694,83	5
Bateratzearen doitzeak	(1.269.026,79)	(1.269.026,79)	
Guztira	16.482.370,84	17.153.363,72	179

Oharra: Plantilla Organikoak 2008ko abenduaren 31n ageri dituen 179 lanpostuez gain, behin-behineko 94 langile daude eskola-tailerraren, gizarte-enpleguaren eta enpleguaren udal-sustapenaren esparruan.

2007 ekitaldian gertatu zen moduan, Hilarión Eslava musika-eskolako kontuak ez dira 2008 ekitaldiko Kontu Orokorraren agiri bateratuan jaso; izan ere, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2008ko urtarrilaren 16an emandako 24/2008 epaian adierazten du entitate horrek ez duela behar bezala zehaztuta bere izaera juridikoa, eta, gaur egun, ezin dela tokiko erakunde autonomo gisa hartu.

Udalak, 2005 ekitaldian, Burlada SL hirigintza-ko udal-sozietatea eratu zuen, haren kapitala, osorik, udalarena izanik. Sozietate horrek ehuneko 51ko partaidetza du 2008 ekitaldian eratu zen Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatean.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak.

Horrez gain, Hilarión Eslava musika-eskolan, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan eta Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean, ANIMSA-n, parte hartzen du.

Toki-entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako arau hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru-dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- 2008ko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne-araudia.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako fiskalizazio-lanaren norainokoa. Laugarrenean, gure iritzia eman dugu Kontu Orokorrak, legezotasunaz, finantza-egoez eta aurrez eman diren aholkuen betetze-mailaz. Bosgarrenean, ikuskatzen hari garen ekitaldiaren ondoren gertatutakoak adierazi ditugu. Seigarrenean, Burlatako Udalaren eta bere erakunde autonomiadunen finantza-egoera nagusiak aztertu ditugu. Zazpigarren eta azken atalean, udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko

egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin batean jaso da udalak 2008ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazki edo memoria.

2008ko ekainean eta uztailean egin da, batik bat, udalean bertan egin behar zen lana.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Burlatako Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren erregularitasun-fiskalizazioa (finantzarioa eta legezketasunari buruzkoa) egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen 2008ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdi esanguratsu guztietan, entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, bai eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak ere; halaber, orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Erakundeak 2008an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2008ko abenduaren 31n.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Burlatako Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako elementu hauek dauzka:

- Toki-erakundearen kontua eta haren erakunde autonomiadunena: Kirol Patronatua eta Kultura Patronatua.

- Burlada SL hirigintzako udal-sozietateren kontu orokorrak. Toki-erakundearena da sozietate horren kapital osoa.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.

- Erakundearen, bere erakunde autonomoen eta Burlada SL hirigintzako udal-sozietatearen egoera-balantze bateratua.

- Oroitidazki edo memoria.

Udalak ez ditu sartu kontu orokorraren eranskin gisa, 272/1998 Foru Dekretuaren 392. d) arauan ezarri bezala, Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietateari buruzko datuak, zeinaren ehuneko 51eko partaidetza baitu Burlada SL hirigintzako udal-sozietateak.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomiadunek badute udalean ezarritako kontabilitate-ereduaren aplikazio sinplifikatu bat. Merkataritza-enpresei aplikagarri zaien Kontabilitate Plan Orokorrak adierazitako moduan aurkezten ditu bere urteko kontuak udal-partaidetzako sozietate publikoak.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuako Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomiadunei dagokienez, berrikusi dira bai beren aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikaturiko oinarritzko prozedurak; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolako oinarritzko alderdiak.

Udal-partaidetza osoa duen sozietate publikoaren jarduna aztertzean, berrikusi egin da ea bere eragiketa nagusiek bete egiten duten, Sektore Publikoko entitatea den aldetik, aplikatzekoak zaizkion lege-printzipioak, bereziki, administrazio-kontratazioari dagozkionak eta Udalak kontratazio horiekiko aplikatu behar dituen kontrol-mekanismoak.

Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietateak, administrazio-baldintzen agirian agintzen denari

jarraituz, finantza-auditoriako txosten bat du, kanpo-auditoreek egina.

Guk eginiko berrikuspenean ez daude sartuta udalak 2008an izenpeturiko hirigintza-hitzarmenak, zeren eta Comptos Ganberak 2009ko fiskalizazio-programan sartu baitu Iruñerriko udalek 2005etik 2008ra bitartean sinaturiko hirigintza-hitzarmenei buruzko berariazko fiskalizazio-lan bat, eta horretara jo behar da. Hala ere, txosten horrek egindako konklusioak eta emandako gomendioak jaso ditugu agiri honetan, toki-erakundeari aplikatzekoak zaizkion heinean.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Burlatako Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi honetara iritsi gara:

IV.1. UDALAREN 2008KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ean egin zen, eta eguneratzeko dago; beraz, ezin izan da egiaztatu bateratutako egoera-balantzearen "Ibilgetuak" duen saldoa arrazoizkoa den ala ez.

Salbuespen hori eginda, eta udalaren finantza-egoerak dakarren zalantzariko egoeraren eta txosten honek adierazten dituen gertaeren bilakaeraren zain, Burlatako Udalaren 2008ko ekitaldiko Kontu Orokorrak behar bezala adierazten ditu sarrera eta gastuen aurrekontuen likidazioari dagokion egiazko egoera, udalaren ondareak 2008ko abenduaren 31n zuen benetako egoera eta eragiketen emaitzak, eta, horrez gain, hura interpretatzeko eta ulertzeko informazio nahikoa eta egokia ematen du, kontabilitate publikoaren alorrean onartuta dauden printzipioak eta arauak (aurreko ekitaldian erabilitakoekin bat datozenak) betez.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, toki-erakundearen jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun-printzipioari jarraituz garatu da. Hala ere, ez dira bete lurzoruaren udal-ondareari buruzko lege-zehaztapenak, haren kontrolaren eta jarraipenaren alorrean.

IV. 3. 2008KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA

Burlatako Udalaren finantza-egoerari erreparatuta, Comptos Ganbera honek bere txostenetan adierazi duena errepikatu behar du; izan ere, zorpetze-maila handia du, 2003 ekitalditik aurrera negatiboa da gastu orokorretarako diruzaintzagerakina, eta, ekitaldi horretatik aurrera, igo egin da kopuru negatibo hori, harik eta 4 milioi eurotara iritsi arte 2008ko abenduaren 31n. Horrez gain, likidezia-arazoak ditu eta, epe motzean bederen, zalantzaragarria da gastu orokorretarako baliabideak sortzeko gaitasuna izanen ote duen.

Datu ekonomiko hauek adierazi behar ditugu:

2008ko ekitaldirako behin betiko aurrekontu bateratua 21,3 milioi eurotara iritsi da, aurrekontualdaketek 3 milioi eurotan handitu baitute hura. Aitortutako betebeharren zenbatekoa 16,5 milioi eurokoa da, eta aitortutako eskubideena, berriz, 17,2 milioi eurokoa.

Gastuen eta sarreraren betetze-maila ehuneko 78 eta 81ekoa izan da hurrenez hurren (ikus VI .1. atala). Aurreko ekitaldiarekin konparatuz, igo egin da gastuen zein sarreraren betetze-ehunekoa.

Gastu-kapituluen artean, garrantzitsuenak langileria-gastuak dira (aitorturiko guztizkoaren gaineko ehuneko 50), ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak (ehuneko 23), eta inbertsio errealak (guztizkoaren gaineko ehuneko 13).

Diru-sarreraren alorrean, ehuneko 20 zerga zuzen eta zeharkakoetatik dator eta ehuneko 62 transferentzietatik. Zeharkako zergengatik aitortutako eskubideak ehuneko 12an bete dira, behar-kada handia izan duelako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergak. Kapital-sarrerak betetzeko bidean desbideratze nabarmenak izan dira, ez baitira izan hirigintza-eskubideengatik espero ziren diru-sarrerak (1,4 milioi euro), ezta ondare-eskualdakengatik espero zirenak ere (799.321 euro). Bestalde, aurreikusi gabeko 2,5 milioi euroko sarrera izan da, Burlada SL hirigintzako udal-sozietateren eskutik jaso den konturako dibidendu batengatik. Udalak lagatutako lurzati batzuk saldu ondoren eskuratu da dibidendu hori.

Aurrekontu-emaitza doituak 1.650.481,68 euroko defizita ageri du (ikus VI .2) atala. 2007 ekitaldian, emaitza hori positiboa izan zen; 60.735,27 eurokoa, hain justu.

Aurrezki garbiaren ehunekoa 7,81ekoa da, sarreraren arruntak apalagoak izan baitira funtzionamenduko gastuak eta gastu finantzarioak baino, 1.031.077,28 euroko zenbatekoan.

Diruzaintzako gerakin osoa (ikus VI.3. atala) negatiboa da, 684.278 euroan. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina edo, bestela esanda, hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko gaitasuna neurtzen duen adierazlea, negatiboa da 2003 ekitalditik aurrera, eta, urte horretatik, gorantz egin du pixkanaka, harik eta, 2008ko abenduaren 31n, 3.959.755,26 euroko zenbatekoa iritsi duen arte. 2008 ekitaldian, igoera ehuneko 83koa izan da. Egoera hori zuzendu beharko litzateke Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 230. artikuluan ezarritako neurrien bidez.

Epe luzerako zorra, 2008ko abenduaren 31n, 4,4 milioi eurokoa da. Halaber, 2008ko otsailean, diruzaintzako eragiketa moduan, udalak berriro egin du 2007 ekitaldian 1,5 milioi euroko zenbatekoan eta urtebeteko epemugaz izenpetu zuen kreditu-poliza. Zehazki, urtebetez luzatu du haren iraupena eta erabilgarri-zenbatekoa 2 milioi euro-tara igo.

2008ko abenduan, kreditu hori hirigintzako udal-sozietatearen transferentziek estaltzen zuten, baina, diruzaintzako gabeziak ikusita, kreditu hori baliatzea erabaki zuen, abenduko ordainketei aurre egiteko. 2008ko abenduaren 31n, erabilitako saldoa 703.346 eurokoa da.

Zorpetze-maila, 2008an, %8,45ekoa izan da, eta udalaren zorpetze-muga, berriz, %0,64koa da. Horrenbestez, Burlatako Udalak nabarmen gaindizten du bere zorpetze-muga.

IV.4. 2006KO TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Ikusita 2007ko ekitaldiari buruzko txostena 2009ko otsailean eman dela, gure lanaren ardatza izan da 2006ko ekitaldian eman ziren gomendioei

zer nolako arreta egin zaien ikustea; hau da, haien betetze-maila egiaztatzea.

Oro har, esan daiteke adierazitako txostenak egiten zituen administrazio- eta kontabilitate-gomendio nagusiak oraindik gauzatzeko daudela, nahiz eta 2008an zehar erregistro bat taxutzeari ekin zaion, udalaren lurzoru-ondarearen gaineko kontrola handitze aldera.

V. GERORA GERTATUTAKOAK

Lan honen jardun-esparrua 2008 ekitaldia da. Hala ere, lan hau egin bitartean, zenbait eragiketaren berri izan dugu, eta egoki iritzi diogu horiek hemen adieraztea. Zehazki, hauek izan dira eragiketak:

Burlada SL hirigintzako udal-sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2009ko apirilaren 15ean, beste sozietate misto bat eratzeko baldintza-orriak eta deialdia onartu zituen. Sozietate horren xedea da Udalak 2008an doan laga zituen Ripagainako B.1.2, B.1.3 eta B.1.4 lurzatiak sustatzea eta garatzea. Sozietate berri horren egitura 2008an eratu zen Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatearen antzekoa da (ikus txosten honetako VII.11 atala), eta partaidetzen ehuneko 51 Burlada SL hirigintzako udal-sozietatearen esku dago eta ehuneko 49 bazkide pribatu baten esku.

2009ko apirilean, Nafarroako kontratazio-atari- an argitaratu zen lizitazio hau: "Ripagainako B.1.2., B.1.3. eta B.1.4. lurzatietan etxebizitzak sustatzea, garatzea eta eraikitzea, dagokion prozedura bete ondoren. Lurzatiak besterentzea eratzekoa den sozietateari. Proiektua idazteko lanak eta obruzuzendaritza esleitzea." Baldintza-agiriak lurzati horientzat ezartzen duen gutxieneko prezioa 6.681.101,14 eurokoa da eta gestioagatiko gehie- nezko ehunekoa, berriz, ehuneko 6koa.

VI. 2008KO KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA

• VI.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA, 2008 EKITALDIA

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen %	Ordaindua	Ordaintzeko	Aitortutako guztizkoarekiko %
Langileria-gastuak	8.646.856,43	1.365.520,15	10.012.376,58	8.305.688,14	82,95	8.150.542,32	155.145,82	50,39
Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	4.043.722,68	294.525,03	4.338.247,71	3.765.476,73	86,80	3.049.263,61	716.213,12	22,85
Finantza-gastuak	329.016,75	-14.067,50	314.949,25	290.601,50	92,27	290.597,62	3,88	1,76
Transferentziak	1.097.868,23	34.854,67	1.132.722,90	1.031.493,62	91,06	749.684,57	281.809,05	6,26
Inbertsio errealak	3.131.641,06	1.330.794,73	4.462.435,79	2.155.135,46	48,30	957.217,01	1.197.918,45	13,08
Kapital-transferentziak	110.000,00	0,00	110.000,00	96.182,86	87,44	96.182,86	0,00	0,58
Finantza-aktiboak	35.000,00	0,00	35.000,00	7.000,00	20,00	7.000,00	0,00	0,04
Finantza-pasiboak	850.789,17	0,00	850.789,17	830.792,53	97,65	827.999,28	2.793,25	5,04
Gastuak, guztira	18.244.894,32	3.011.627,08	21.256.521,40	16.482.370,84	77,54	14.128.487,27	2.353.883,57	100,00

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetzearen %	Kobratua	Kobratzeko	Aitortutako guztizkoarekiko %
Zerga zuzenak	3.430.727,17	0,00	3.430.727,17	3.192.056,03	93,04	2.943.105,23	248.950,80	18,61
Zeharkako zergak	1.687.276,41	0,00	1.687.276,41	207.741,74	12,31	126.123,55	81.618,19	1,21
Tasak eta beste sarrera batzuk	2.691.374,44	10.008,61	2.701.383,05	2.358.943,94	87,32	2.211.235,15	147.708,79	13,75
Transferentzia arruntak	6.042.082,27	1.670.823,74	7.712.906,01	7.157.318,33	92,80	7.021.895,99	135.422,34	41,73
Ondare-sarrerak	266.003,80	0,00	266.003,80	276.915,20	104,10	224.314,05	52.601,15	1,61
Inbertsioen besterentzea	1.323.263,93	0,00	1.323.263,93	523.943,12	39,59	523.943,12	0,00	3,05
Kapital-transferentziak	2.769.166,30	391.621,50	3.160.787,80	3.428.249,24	108,46	2.747.534,12	680.715,12	19,99
Finantza-aktiboak	35.000,00	939.173,23	974.173,23	8.196,12	0,84	8.196,12	0,00	0,05
Finantza-pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Sarrerak, guztira	18.244.894,32	3.011.627,08	21.256.521,40	17.153.363,72	80,70	15.806.347,33	1.347.016,39	100,00

VI.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2008
+ Aitortutako eskubideak, garbi	17.153.363,72
- Aitortutako betebeharrak, garbi	(16.482.370,84)
Aurrekontu-emaizak	670.992,88
DOIKETAK	
- Finantziazioaren desbideraketa positiboa FAG	(356.698,53)
(+) Finantziazioaren desbideraketa negatiboa FAG	0,00
- Finantzaketaen desbideraketa positiboa RA	(2.443.916,38)
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	479.140,35
Aurrekontu-emaizta doitua (defizita)	(1.650.481,68)

VI. 3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2008
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.579.878,65
(+) Gastuen aurrekontua: Diru sarrerak: aurtengo ekitaldia	1.347.016,39
(+) Sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	738.869,92
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	139.631,33
(-) Diru-bilketa zaileko eskubideak	(645.638,99)
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak.	(4.842.722,63)
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	(2.353.883,57)
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	(88.811,36)
(+) Aplikatzeko dauden gastuak	18.264,66
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	(2.418.292,36)
(+) Diruzaintzako funts likidoak	2.578.565,98
(+) Finantziazio-desbideratze metatu negatiboak	0,00
= Diruzaintzako gerakina, orotara	(684.278,00)
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	410.343,53
Gerakina, baliabide atxikiek sortua	2.865.133,73
Gerakina, gastu orokorretarako	(3.959.755,26)

VI.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

AKTIBOA		
Azalpena	2008	
IBILGETUA		53.089.085,00
Ibilgetu materiala	36.625.911,67	
Ibilgetu ez-materiala	119.545,99	
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	16.336.641,28	
Ibilgetu finantzarioa	6.986,06	
ZIRKULATZAILEA		8.641.313,16
Izakinak	1.620.484,26	
Zordunak	2.626.157,33	
Finantza-kontuak	4.394.671,57	
AKTIBOA, GUZTIRA		61.730.398,16
PASIBOA		
Azalpena	2008	
FUNTS PROPIOAK		51.762.670,76
Ondarea eta erreserbak	34.461.523,98	
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	5.496.157,40	
Kapital-dirulaguntzak	14.304.989,38	
Konturako dibidendua	(2.500.000,00)	
EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK		4.426.977,88
Jasotako jesapenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	4.426.977,88	
EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK		5.540.749,52
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	5.540.749,52	
PASIBOA, GUZTIRA		61.730.398,16

VII. IRUZKINAK, KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsu bakoitzerako, gure aburuz udalak bete behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

VII.1. ALDERDI OROKORRAK

Burlatako Udalak 2008ko otsailaren 28an eman zion hasierako onarpena 2008 ekitaldiko aurrekontuari, eta, lege-izapideak bete ondoren, urte horretako maiatzean hartu zuen indarra aurrekontu horrek.

Udalak, 2003 ekitalditik, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboa du, eta gerakin negatibo horren zenbatekoak gora egin du pixkanaka, harik eta, 2008ko abenduaren 31n, 4 milioi euroko zenbatekora iritsi den arte. Horiek horrela, gerakin negatibo hori ehuneko 83 igo da 2007 ekitaldiarekiko.

Ganbera honek behin baino gehiagotan adierazi du komeni dela finantza-bideragarritasunari buruzko plan bat egitea hurrengo ekitaldietarako. Eranskinean jasotzen da 2008 ekitaldiko kontuen oroitidazki edo memoria, eta bertan adierazten da 2009ko Udal Aurrekontuaren espedientearen jaso dela bideragarritasun-plan bat egiteko eta aplikatzeko helburua.

Udalak ez ditu sartu kontu orokorraren eranskin gisa, 272/1998 Foru Dekretuaren 392. d) arauan ezarri bezala, Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietateari buruzko datuak, zeinaren ehuneko 51eko partaidetza baitu Burlada SL hirigintzako udal-sozietateak (udalarena da azken sozietate horren kapital osoa).

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontua indarreko legediak ezarritako epeetan onetsi behar da, udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariarako tresna gisa erabili ahal izateko.*

- *Diruzaintza-gerakinak negatiboak diren kasuetarako Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 230. artikulua ezartzen dituen neurriak aplikatu behar dira.*

- *Premiazkoa eta presazkoa da finantza-bideragarritasuneko plan bat egitea datozen ekitaldietarako, kontuan izanik Ripagainako unitatearen hirigintza-garapenaren ondorioz aurreikustekoak diren diru-sarreraren lorpena, gastu arruntaren kontrola, udalerrian aplikatu daitezkeen presio fiskala,*

ematekoak diren zerbitzuak (egungoak nahiz berriak), zerbitzuen kostua eta herritarrengan izanzen duten eragina, eta zorpetze-muga.

- *Kontu Orokorra osatzea, eranskin gisa jasoz Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietateari buruzko datuak.*

VII.2. LANGILERIA

Langileria-gastuak 8.305.688,14 eurokoak dira, eta zenbateko hori 2008an sortutako gastu guztien ehuneko 50 da. Gainerako udalen batez bestekotik gora dago ehuneko hori.

Udaleko plantilla organikoan, lanpostu hutsak ehuneko 30 inguru dira, eta, horren ondorioz, aldi baterako kontratazio ugari egiten dira.

Lanpostuak betetzeko ondoko deialdiak berrikusi ditugu:

- *Gizarte Ongizateko Departamentura atxikitako ofizial administrari baten lanpostua lehiaketa-oposizio mugatu bidez hornitzeko deialdia, Legegintzako 251/1993 Foru Dekretuak bere 15.6 artikuluan arautzen duenarekin bat etorritik.*

- *Hirigintza ofizial administrari baten lanpostua hornitzeko deialdia.*

- *Zerbitzu anitzetako bost langileren lanpostuak hornitzeko deialdia.*

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da indarrean dagoen araudia behar bezala bete dela.

Hona gure gomendioak:

- *Plantilla organikoa udalaren langileria-premiarekin bat datorren ala ez aztertzea komeni da.*

- *Aldi baterako kontratuak dituzten langileen kopurua handia denez, aztertu behar da plaza hutsak betetzeko deialdiak egitea komeni den, auzi judizialik sor ez daitezkeen kontratu horien iraupen-mugak bete ez direlako edo beste edozein arrazoi dela tarteko.*

- *Behar bezala arrazoitu behar ditu udalak Legegintzako 251/1993 Foru Legeko 15.6. artikulua baliatuz egiten dituen deialdi mugatuak.*

VII.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak, 2008 ekitaldian, 3.765.476,73 euroko zenbateko bateratua osatu dute. Aurreikusitako aurrekontuaren ehuneko 87 bete da, eta gastu horiek gastu guztien ehuneko 23 osatzen dute. 2007 ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 8,42 igo dira.

Hona gastuak, xehetasunez adieraziak:

2008an aitorturiko betebeharrak	
Errentamenduak	52.551,63
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	681.568,96
Materiala, hornidurak eta beste	3.027.110,48
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	4.245,66

2008 ekitaldian esleituriko kontratazio-espeditante hauek berraztertu ditugu:

- Burlatan migrazioetarako udal-bulegoa kudeatzeko laguntza teknikoaren kontratazioa.
- Burlatako Udalean hausnarketa estrategikorako prozesu bat egiteko laguntza teknikoaren kontratazioa.

Gure azterketaren arabera, behar bezala errespetatu da aplikatzekoa den araudia.

Kultura Patronatuaren berrikuspena egitean, ikusi dugu zezenketa-ikuskizun eta kultura-jardueren faktura batzuk kontabilizatu direla, 56.724 eta 35.352 euroko zenbatekoa dutenak hurrenez hurren, eta ez dela, kasu horietan, kontratazio publikoko prozedurarik edo kontraturik egin.

Halaber, Comptos Ganbera honek 2007 ekitaldiko txostenean adierazi zuen moduan, 2008ko ekitaldiko aurrekontuari egotzi zaizkio 2007an egindako zenbait gastu, 25.000 euroko zenbatekoa dutenak gutxi gorabehera.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratazio publikoa arautzen duten prozedurak aplikatu behar ditu Kultura Patronatuak.*

VII.4. INBERTSIOAK

2008 urterako aurreikusitako inbertsioak ehuneko 48an bete dira. Aurrekontuaren betetze-zenbateko zehatza 2.155 135,46 eurokoa izan da, eta zenbateko hori 2008ko aurrekontuaren gastu gauzatuaren ehuneko 13 da.

Kontratazio-espeditante hauek aztertu ditugu:

Kapitulu ekonomikoak		Adjudikatzeko prozedura	Zenbatekoa
Iturrondo industrialdeko sareak berrurbanizatzea eta berritzea	Obrak	Irekia	679.701
Udal-jauregia zaharberritzea (L fasea)	Obrak	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	134.575
H. Eslava eskolako pabilioia birgaitzea	Obrak	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	112.959
Udal-jauregia zaharberritzeko proiektua idaztea eta obra-zuzendaritza kontratatzea	Laguntzarako kontratua	Irekia	84.100
N-12aren berrantolatze-proiektua idaztea	Laguntzarako kontratua	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	37.700

Esleipen-espediente horiek azterturik, ez dugu administrazio-kontratuei buruzko araudiaren arau-hausterik hauteman.

Hirigintza-jarduera kudeatu eta kontrolatzeko langileak hartu dituen arren, Burlatako Udala inbertsio nahiko handiak egiteko agintzen ari zaio Burlada SL hirigintzako udal-sozietateari, nahiz eta sozietate horrek baliabide propiorik ez izan; gainera, haren esku uzten ditu proiektu horiek kontrolatzeko eta ikuskatzeko lanak.

Udalak, 2008ko urriaren 30ean eginiko Osoko Bilkuran, hirigintza-hitzarmen batek ematen zion ahalmen hau egikaritzea erabaki zuen (hitzarmena 2005ean izenpetu zen eta agiri osagarri bat erantsi zitzaion hitzarmen horri 2007ko urtarrilean): prezioa Hirigintza Aprobetxamenduko Unitateen esleipenaren bidez konpentsatu beharrean, eskudirutan ordaintzea, Udalaren erakunde instrumental baten bidez, hitzarmen horretan adostuta prezioa, hau da, 558.609,16 euro.

Hitzarmen hori berrikusi egin da "Iruñerriko eskualdeko hirigintza-hitzarmenei buruzko fiskalizazio-txostena (2005-2008)" berrikuspen-txostenaren baitan. Berrikuspena egin ondoren, zenbait salbuespen hauteman dira, onura eta interes sozialaren justifikazio nahikorik ez zuelako, txosten juridiko eta ekonomikoak falta zituelako, behin betiko onarpenaren publizitaterik egin ez zelako eta obrak eta aprobetxamendu-unitateak zuzenean esleitu direlako. Hala, adierazitako txostenak egiten dituen gomendio hauek aplikatu behar zaizkio:

- *Hirigintza-arautegia zorrotz errespetatzea, partikularrekiko hirigintza-hitzarmenak izapidetu, onetsi eta betetzean errespetatu behar diren funtsezko alderdiei dagokienez.*

- *Interes publikoa bermatzea eta justifikatzea hitzartutako jardueretan.*

- *Neurri egokian babestea hitzarmenetik ondorioztatutako kontraprestazioen oreka Administrazioaren eta partikularren artean.*

- *Behar bezala justifikatzea hitzarmenen oinarrian dauden ebaluazio-txostenak.*

- *Hitzarmenetatik ondorioztatzen edo haietan jasotzen diren eta administrazio-egintzetan aplikatzeakoak diren erabaki arau-emaile espezifikokoak betetzea, haiek baliagarriak izan daitezzen eskatutako legezko baldintzak betetzen direla ziurtatzea*

eta, hala egokituz gero, espedienteak horrelako egintzak legezkoak izateko ezarritako aginduzko arauen arabera izapidetzea.

Eragiketa hori ez da 2008ko aurrekontuan adierazi, eta hitzartutako prezioan, gainera, "afekzio-sari" bat jasotzen da, eraikinen birjarpen-balioaren ehuneko 5ekoa, eta, zehazki, 13.722 euroko zenbatekoa duena. Eragiketa lurzoru-salmentako hitzarmena denez, ez zegoen udalari sari hori eskatzeko indarrezko xedapenik, baina udalak bere egin zuen sari hori ordaintzeko konpromisoa, hitzarmenaren eranskin gisa jasotzen den balorazio-txosten teknikoan hala jasotzen baitzen⁽¹⁾.

Ordainketa Burlatako hirigintzako udal-sozietateak egin zuen, eta eskritura publikoan jaso zen 2009ko otsailaren 22an.

Hona gure gomendioak:

- Behar bezala arrazoitzea Burlada SL hirigintzako udal-sozietateri egiten zaizkion mandatuen egokitasuna.

- Aplikatzekoak diren lege-prozedurak abiaraztea "afekzio-sariaren" irregularitatea zuzentzeko.

VII.5. ZERGAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

Zerga, tasa eta beste diru-sarrerengatik sortu diren sarrerak, 2008 ekitaldian, 5.758.741,71 euroko zenbatekoa osatu dute. Zehazki, ehuneko 74 bete da, eta diru-sarrera guztien ehuneko 36 osatzen dute.

2007 ekitaldiarekin konparatuz, aurreko ekitaldi horretan betetze-maila ehuneko 89koa izan zen; horrez gain, diru-sarrerak ehuneko 12 jaitsi dira. Aurrekontu bateratuak, kapitulu horietarako, ehuneko 7ko igoera aurreikusten zuen 2007 ekitaldiarekiko; hala, ez zen aintzat hartu higiezinaren sektoreak eta eraikuntzakoak bizi duten krisiak diru-sarrera horiekiko izan zezakeen eragin kaltegarria.

Isunak kudeatzeko prozedura 2007 ekitaldian aldatu zen, baina soilik kobratutako isunak adierazten dira aurrekontuan.

Kirol Patronatuak 2008an erabili zuen sistema informatikoak ez du aukerarik ematen diru-sarren kudeaketari dagozkion datuak benetakoak diren ala ez egiaztatzeko. Beste sistema informatiko bat hartu da 2009ko ekainean.

(1) Paragrafoari idazketa berria eman zaio, Burlatako Udalak egindako alegazioa aintzat hartu ondoren.

VII.8. atalean adierazi dugun moduan, 2009an ar idira izapidetzen 2008ko aurrekontuan aitortu behar ziren tasa batzuk, lurzoru publikoaren okupazioari dagozkionak.

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuek, hirigintza-jarduerarekin lotutako diru-sarreraren aurreikuspena egitean (lurren balio handitzearen gaineko zerga, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, obra-lizentziak, etab.), egungo jarduera-egoerari erreparatu behar diote, kontzeptu horiei dagozkien betetze-mailak oso txikiak izan baitira.*

- *Multak kudeatzeko prozedura osatu behar da, aurreko ekitaldietan gertatu den moduan, kobratzeke dauden isunen zenbatekoen berri izateko.*

- *Kirol Patronatuaren diru-sarreraren alorrean, berriazko prozedurak prestatu eta aplikatu behar dira, kudeaketa datuak behar bezala kontrastatzeko diru-sarreraren kontularitza-erregistroarekin eta diru-bilketarekin.*

- *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak aldizka egitea.*

- *Kontrol- eta ikuskapen-prozedurak ezarri behar dira Udalarentzat diru-sarrerak eragin ditzaketen jardueretan (lizentziak, tasak, etab.).*

VII.6. INBENTARIOA - IBILGETUA

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Hona gure gomendioak:

- *Udal ondasunak (jabari publikokoak, ondasunekoak eta herri ondasunak) eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko eta ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeke prozedurak zehaztu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

VII.7. KONTINGENTZIAK

Udaleko aholkulari juridikoengandik jasotako erantzunak berrikusiz, honako kontingentzia hauek hauteman ditugu:

- 2009ko ekainaren 1ean epai bat eman da Burlatako Udalaren aurka, partzialki onetsi baita auzotar batzuk aurkeztu zuten errekurtsioa Igeltserotzako Lantegi Eskolak beren hamaika jardueraturteetan sortu dituen eragozpenengatik. Epaiak 320.000 euro inguruko kalte-ordain bat finkatu du. Erantzukizun zibileko aseguru bat du udalak, baina gaurko egunez oraindik ez da ziurra asegururak zer neurrira arte ordainduko duen.

- *Udal-arkitektoak 2009ko apirilaren 3an egin dako txostenak eraikuntza-entresa pribatu bati eskatzen dio 485.000 euro ordain ditzala Burlatan indarrean dagoen Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorreko S-4 unitateko lurzoru publikoaren okupazioari dagokion tasa ordaintzeko. Diru-sarrera hori ez da 2008ko aurrekontuan jaso eta 2009ko aurrekontuetan jasoko da. Txosten hau egiterako unean ezin izan da jakin zer zenbateko izanen den, azkenean, berreskuratuko dena.*

VII.8. ERAKUNDE AUTONOMIADUNAK

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2008an emandako epai batek adierazi zuen Hilarión Eslava musika-eskolak ez duela izaera juridiko zehazturik, eta, gaur egun, ezin dela esan Tokiko Erakunde Autonomiaduna denik.

Hona gure gomendioak:

- *Erakunde autonomoiei dagokienez, beharrezkoa da haien estatutuak osatu eta gaurkotzea, horrela haien benetako autonomia-maila agertzerarekin emateko eta udalak haien jardueraren gainean erabiltzen dituen kontrol- eta zaintza-mekanismoak erakusteko.*

- *Burlata eta Aurrabiako "Hilarión Eslava" Udalaren Musika Eskolaren izaera juridikoa zehaztu behar da.*

VII.9. HIRIGINTZA

2005eko ekainaren 1ean hartutako erabaki baten bidez ekin zien Burlatako Udalak udal-plana onartzeko izapideei. Erabaki hori 2005eko ekainaren 6an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 80. zenbakian. Oraindik plan hori onartu ez denez, indarrean dago oraindik 1991ean onartu zen udal-plana.

Lurzoruaren %10 derrigorrean udalari lagatzeko betebeharraren ondorioz eskuratzen diren lurrak lurzoruaren udal-ondarean sartzen dira, eta toki-erakundearen gainerako ondasunekiko kudeaketa berezitua izan behar dute. Ondasun horiek ez daude behar bezala kontrolatuta; hala ere, 2008 ekitaldian gabezia hori zuzentzeko bideari ekin zaio.

2008 ekitaldian zehar, udal-arkitekto baten lanpostua betetzeko deialdia ebatzi da, eta, ondorioz, lanpostu hori eskuratzeak hobetu egin dezake hirigintza-jardueraren kudeaketa eta kontrola.

Bestalde, eginiko ikuskapenaren arabera, hauxe gomendatzen dugu:

- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistro bat eta kontrol-sistema bat ezarri behar dira, gogoan izanik ondare horrek gainerako ondasunetatik bereizitako kudeaketa izanen duela eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritako helburuei lotuta dagoela.*

VII.10. BURLADA SL HIRIGINTZAKO UDAL-SOZIJATEA

Sozietate publiko bat eratzeko administrazio-espeditentia onartu zuen Burlatako Udaleko udalbatzak 2005eko irailaren 7an. Sozietate horren xedea da Udalaren ekintzak eraginkorrak izatea hiriaren birgaitzea sustatzeko, etxebizitzak eta beste eraikin batzuk sustatzeko, lurzoria urbanizatzeko, egoera txarrean dauden hiri-eremuak zaharberritzeko, eta, orobat, orube eraikigarrien eta horietan eraikitzen diren eraikinen salmentako eta errentamenduko prezioak murriztea.

“Sociedad Urbanística Municipal de Burlada SL” da hirigintzako udal-sozietate horren izena, eta 2006ko otsailaren 3an eratu zen 1,8 milioi euroko sozietate-kapitalarekin eta 664.556,94 euroko jaulkitze-primarekin. Azken diru hori osorik ordaindu zuen Burlatako Udalak, zenbateko horretan baloratutako lurzati baten lagapena eginez sozietate horri.

Burlatako Udalak, 2007ko azaroaren 22an egindako ezohiko osoko bilkuran, erabaki zuen doan lagatzea sozietate horri Ripagainako udalez gaidiko eragina duen plan sektorialeko berrantolatze-proiektutik eratorritako B-2.1, B-2.2, B-2.3 eta B-2.4 lurzatiak, horien hirigintza-kudeaketa garatu eta etxebizitzaren sustapen publikoak egin zitezten.

Hirigintza-sozietate horrek, bere aldetik, etxebizitzak garatu, sustatu eta eraikitzeke sozietate mugatu bat eratzeko xedez, bazkide pribatu bat hautatzeko deialdi bat egin zuen. Deialdi hori arautzen zuen baldintza-agiria prentsan argitaratu zen, eta deialdira aurkezteko epea 2008ko martxoaren 18an amaitzen zen. Deialdi horrek adierazten zuen aurrez adierazitako lurzatiak, lurzoruaren udal-ondarekoak, transmititu egingen zirela negoziazio juridiko horren baitan.

Comptos Ganbera honek 2007 ekitaldirako egin zuen txostenean gerora gertatutako egitate

moduan aztertu zuen deialdi hori, eta txosten horretan adierazi zen, kontratu-mota horietarako Kontratu Publikoen Foru Legeak eta Toki Administrazio Foru Legeak arautzen duten prozedurara egokitzeko, beharrezkoa zela lizitazioaren iragarki bat argitaratzea Nafarroako Kontratazio Atarian, eta bertan adierazi behar zirela kontratua arautzeko baldintza guztiak, eta behar bezala bete behar zirela lege ezarritako prozedura-epaia.

Halaber, kontratuaren balio-zenbatespena eta eman beharreko prestazioak ere adierazi behar ziren, eta, esleipen-irizpideei dagokienez, horietako bakoitzaren haztapen erlatiboa ezarri behar zen. Irizpide horiek, gainera, objektiboak, zenbatesiak eta alde zuzenetik ezagutuak behar zuten izan.

Deialdi horren ondorioz “Ripaberri Desarrollo Urbano S.L.” izeneko sozietatea eratu zen 2008ko ekainean (sozietate horren partaidetzen ehuneko 51 du Burlada SL hirigintzako udal-sozietateak), eta Ripagaina eremuko lurzati horiek eskuratu zituen 7,4 milioi euroko prezioan.

Horren ondorioz, Burlada SL hirigintzako udal-sozietatearen 2008 ekitaldiko emaitza 6 milioi euroko etekina lortzea izan da, eta, etekin horiek izan ondoren, 2,5 milioi euroko konturako dibidendu bat banatu dio Burlatako Udalari.

Bestalde, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeak bere aplikazio-eremuko esparru subjektiboan sartzen ditu Nafarroako toki-erakundeak eta azken horiek lotutako erakundeak. Ez dugu egiaztatu ahal izan kontratazio-prozesurik egin denik hirigintza-aholkularitzako zerbitzuak eskuratzeko, nahiz eta, kontzeptu horretan, 41.680 euroko gastua kontabilizatu den gutzira.

Hona gure gomendioak:

- *Dagokion kontratazio-prozedura betetzea, kontratuei buruzko foru-legediak arautzen duenari jarraituz.*

- *Udalak diseinatu eta aplikatzea udalaren kapitaleko sozietateei ezarri beharreko finantza-kontrolerako prozedurak, prozedura juridikoak eta prozedura teknikoak.*

Burlatako Udalak, 2008ko urriaren 30ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen doan lagatzea Burlada SL hirigintzako udal-sozietateari Ripagainako udalez gaidiko eragina duen plan sektorialeko berrantolatze-proiektutik eratorritako B.1.2, B.1.3 eta B.1.4 lurzatiak, horien hirigintza-kudeaketa garatu eta etxebizitzaren sustapen publikoak egin zitezten, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak 228.2 c) artikulua arautzen duena betez.

VII.11. RIPABERRI DESARROLLO URBANO, SL SOZIETATEA

Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatea 2008ko ekainaren 17an eratu zen, 3.100 euroko sozietate-kapitalarekin. Kapital horren ehuneko 51 Burlada SL hirigintzako udal-sozietateak harpidetu zuen eta ehuneko 49 bazkide pribatu batek.

Haren sozietate-xedea, besteak beste, edozein izaeratako orubeak, lursailak eta finkak erosi, saldu, administratu eta urbanizatzea da, eta batez ere, Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Ripagainako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan.

Bazkide pribatuak, aurreko atalean adierazitako deialdian egiten zen proposamenaren harian, ehuneko 4ko portzentaje bat eskuratuko du kudeaketa-gastuen kontzeptupean.

Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatea hasi da babes ofizialeko 48 etxebizitzaren eta prezio tasatuko 158 etxebizitzaren eraikuntza sustatzen, Ripagainako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan. Horren harian eta, besteak beste, 894.467 euroko zenbatekoa duten gastuak erregistratu ditu oinarrizko proiektua eta exekuzioa idazteagatik, baina ezin izan dugu egiaztatu Kontratazio Publikoari buruzko Foru Arauak araututako prozedura bete denik kasu horietan.

Nafarroako Kontratazio Atariak, 2008ko azaroaren 11n, Ripagainako B.2.1-B.2.2-B.2.3-B.2.4 lurzatiaren babes ofizialeko 48 etxebizitza eta salneurri tasatuko 158 etxebizitza eraikitzeke obra-kontratuaren lizitazio-iragarkia argitaratu zuen. Kontratazio-aurrekontua 20.000.000 eurokoa da (BEZ gabe). Ripaberri sozietateko bazkide pribatuari esleitu zaio kontratua, 2009 ekitaldian, 19.976.814 euroko zenbatekoan (BEZ gabe). Hori izan da aurkeztu den eskaintza bakarra.

6/1990 Foru Legeko 224. artikuluko 2. puntuan adierazten diren kontratuak prestatu eta esleitzeke, Nafarroako toki-erakundeen mendeko edo haiei lotutako merkataritza-sozietateek bete egin behar dute Kontratazio Publikoari buruzko Foru Lege. Horien artean sartzen dira laguntza tekniko-kontratuak.

Kanpo-auditoreek egindako auditoria-txosten bat du sozietateak, eta txosten horrek salbuespen bat ageri du memorian informazioa falta delako jakiteko, besteak beste, zer kargu betetzen dituzten Ripaberri sozietateko kontseilariak antzeko xede soziala duten beste sozietate batzuetan.

Finean, 2007ko txostenean adierazi zen moduan, Comptos Ganberaren ustez, hirigintzaren kudeaketa ahalik eta gardentasun- eta kontrol-

maila handienarekin egin behar da. Horrekin lotuta, Administrazioak berezkoa duen jarduera hori egite aldera udalak zenbait hirigintza-sozietate sortu izanak oztopatu egiten du printzipio horiek betetzea, eta udalarentzat zailagoa egiten aipatu jarduera antolatzea eta kudeatzea.

Hona gure gomendioak:

- *Udalak bere burua antolatzeke ahalmena duenez bai eta autonomia ere udal-hirigintza kudeatzeke egokien irizten dion modua aukeratzeko, azter dezala gaur egun jarduera hori kudeatzeko modua, hirigintza-sozietateen bidezkoa, bai eta kudeaketa-eredu hori bat datorren, osoro, aipatu jarduerak bilatu beharreko interes publikoaren helburuarekin.*

- *Gomendatzen dugu hertsiki errespetatu daitezela hirigintzaren eta kontratazio publikoaren alorreko legediak ezarritako irizpideak eta prozedurak, zeinek bermatzen duten zenbait printzipio betetzea, hala nola tratu-berdintasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna eta publikotasuna, bai eta jarduera hori guztia udalak behar bezala kontrolatzea ere.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 25ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

BURLATAKO UDALEKO ALKATE-JAUNAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGIN DIZKION ALEGAZIOAK

Idatzi honekin batera bidaltzen dizut Burlatako Udalaren 2008 ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenari —Comptos Ganberak 2009ko abenduaren 30ean onartutakoari— egin diogun alegazio-txostena.

Burlatan, 2010eko urtarrilaren 15ean

Alkatea: José Muñoz Arias

Burlatako Udalak hirigintza-hitzarmen bat izenpetu zuen hirugarren pertsonekin Alde Zaharreko Barne Erreformako Plan Bereziko UA-1 jarduketan unitatearen berdinbanaketako prozesuaren baitan. Hemen dagokigunez, txosten horrek planteatzen zuen udal-interesekoa zela udaletxeko plazako bi eraikin zahar kentzea, eta, horren harian, beren jabeek bi eraikinak eraitea Burlatako Udalaren hirigintza-aprobetxamenduaren trukean (alde aurretik, berariaz egiten zen horren balorazioa). Hitzarmen horrek aukera ematen zuen aprobetxamendu-permuten ordezk eskudiruzko ordainketak egiteko.

Bi eraikin horiek dauden lurzatiak, itxuraz, Burlatako Alde Zaharreko Barne Erreformako Plan

Bereziaren UA-1 unitatean zeuden zati batean, eta, zehazki, unitatean zegoen zatiak aprobetxamendua sortzen zuen, eta obrak, eraikuntzak eta instalazioak berrantolatzearen baitan ordainduko ziren. Horrez gain, kanpoaldean, bi eraikin edo etxebizitzak zeuden lekuan, ez zen exekuzio-sistematik zehaztu, unitatearen eremutik kanpo baitzeuden.

Ikusita ezin zirela etxebizitzak kendu berrantolatze proiektuaren baitan eta zer kalte ekarriko zukeen udaletxeko plaza publikoari bi eraikin horiek bere horretan uzteak, erabaki zen bi eraikin horiek eraistea eta Udalari lagatzea UA-1 unitatea kudeatzeko hirigintza-hitzarmenean okupatzen zuten lurra, nahiz eta jakin higiezin horiek unitate horren eremutik kanpo zeudela.

Horren ondorioz, eraikitako bi lurzati daude, eta lurzati horien zati bat UA-1 jarduketa-unitatean sartuko litzateke. Hori ikusita, berdinbanaketako erregimena aplikatu zitzaion unitate horri, eta unitatetik kanpo geratzen zatiari buruz, hitzarmenak aurreikusi zuen eraitsi eginen zirela, gero urbanizatu eta udalari lagatzeko, horren ordainetan hirigintza-aprobetxamenduak edo eskudirua jasotzeko. Lehenik, ordea, aprobetxamendu horien tasazioa egiten zen.

Azkenean, Hitzarmena betetzeari ekin zitzaion, eta eskudirutan ordaindu ziren 558.609,16 euro. Hala, eraikinak eraitsi ziren, lurrak urbanizatu ziren eta Udalari laga zitzaion berari zegokion zatia jabari publikoan sar zezan.

KONTSULTA

Comptos Ganberak, 2009ko abenduaren 30ean egindako behin-behineko txostenean, zalantzan jartzen du hitzarmen hori, %5eko afekzio-sari bat, 13.722 eurokoa, jaso zelako prezioan. Comptos Ganberaren ustez, ez zen halakorik ezarri behar, lur-salmenta bat adosteko hitzarmena baitzen.

TXOSTENA

LEHENA.- Jarduketaren izaera juridikoa.

Azaldu dugun moduan, kudeaketa-izaerako hirigintza-hitzarmen baten baitan egin zen bi eraikin horiek eraitsi, eraikinek betetzen zuten orubea urbanizatu eta lurrak Udalari laga eta espazio libre publikoen sisteman sartzeko hirigintza-eragiketa hori; beraz, ez dugu uste egokia denik eragiketa horri, soil soilan, salmenta deitzea, eta, ondoren, prezioan %5eko afekzio-saria hitzartzeko aukera ukatzea.

Egia da, eraikinen kokapena ikusita eta horiek zeuden lekuan uzteak plaza publikoan izanen zuen eragin kaltegarriari erreparatuta, jarduera logikoena eraikinak UA-1 unitatean sartzea zela,

haiek antolamenduz kanpo deklaratu, eta, horren ondoren, zegokion hirigintza-aprobetxamenduaz ordeztu lurzorua. Horrekin batera, indarreko legediak araututako moduan baloratuko ziren eraikinak. Eraikinak Unitatetik kanpo zeudenez, beste aukera bat zen haien derrigorrezko desjabetzeari ekitea, behin jarduera horren onura publikoa edo gizarte-interesa deklaratu ondoren.

Jardun-modu bat zein bestea aukeratuta ere, bi kasuetan izanen litzateke aplikagarria afekzio-saria, lehen kasuan afekzio-sarira edo eraikinen balioari zegokion kalte-ordainera joz, eta, bigarren kasuan, balioespen edo balio justu osoa zehaztuz (lurzoruarena eta eraikinen).

BIGARRENA.- Afekzio-saria berdinbanaketatresnetan.

Jakina denez, badira hainbat arau —Lurzoruaren Legeko Testu Bategina/76 (102.2. art.) Hirigintza Kudeaketako Erregelamendua (98-3. art.), LLTB/92 (63. art.), 6/98 Legea (31. art.) eta, azkenik, LLTB/08 legeko 21, 22 eta 23-1-b eta c artikulak— adierazten dutenak derrigorrezko desjabetzeari buruzko legediak araututako irizpideak aplikatu behar zaizkiela hirigintza-antolamenduz kanpokotzat deklaratzaren diren obra, eraikin, instalazio eta plantazioei, baldin eta kendu beharrekoak badira, hirigintza-antolamendu berriarekin bat ez datozelako. Hori horrela da estatuko hirigintza-legediak berariazko igorpena egiten duelako, eta jakina da estatuko legediak indar osoa duela balioespenen alorrean.

Berdinbanaketa-prozesu orotan, prozesura ekarritako lurrek hirigintza-aprobetxamendua eragiten dute, eta hura banaketa egin ondorengo orubeetan zehazten da (orube horiek hirigintza-planera egokitzen dira). Ondorioz, ez da lurzoruen baloraziorik egiten, baldin eta ez bada lur-esleipenetan banaketa desorekatu (goitik zein behetik) egiten. Ematen dituzten partzelen ordeztu birbanaketaren ondoriozko orubeak jasotzeaz gain, planeamenduak ukitutako jabeek eskubidea dute kalte-ordain bat jasotzeko bete nahi den planeamenduaren antolamenduarekin bateraezina diren ondasun eta eskubideengatik (noski, ez dute lurzoruarekin lotutako ondasun eta eskubideak izan behar). Hala, ondasun eta eskubide horien titularrek jasoko dituzte kalte-ordainak. Beste urbanizazio-karga bat balira bezala ordainduko dituzte kalte-ordainak, eta ordaintzaileak hirigintza-prozesu horrek ukitutako jabe guztiak izanen dira, haiei dagokien eskubideen proportzioan. Jabe horien artean sartzen da, noski, kalte-ordainaren xede den ondasunaren jabea, baldin eta gerorako aprobetxamenduen onuradun izanen bada.

Hori horrela izanda, Lurzoruaren Legeko 1976ko Testu Bategina onartu eta gaur egun arte, balorazioen arloan indarrean izan den estatuko oinarriko legediak arautu du lurzoruarekin zerikusirik ez duten ondasun horiek baloratzeko derrigorrezko desjabetzeko arauak aplikatu behar direla ordezko zuzenbide gisa.

Behar baino gehiago ez luzatzeko, hemen aipa dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko 2. sekzioak 2005eko otsailaren 25ean jarritako 2016/2002 errekurtsioan eman zuen epaia, berariaz aztertzen baitu afekzio-sariaren aplikazioa, berrantolatze-proiektu baten behin-behineko likidazio-kontuko kalte-ordain kontzeptuen baitan:

“LAUGARRENA: Afekzio-saria.

Demandak aipatzen duen bigarren gaia afekzio-sariarena da, demanda-jartzaileak uste baitu bidezkoa dela %5eko igoera aplikatzea behin-behineko likidazio-kontuko kontzeptu gutzietan.

Zehazki, bategindako demandan adierazten du (eginbideen 401. folioa) afekzio-sari horren kontzeptupean ordaindu behar direla 2.910,14 euro etxebizitzari eta gainerako eraikuntzei dagokien 58.402,81 kalte-ordainetik; 1.291,7 euro etxez aldaraztearen eta batetik bestera joatearen kontzeptuan onartu den 25.834,52 euroko kalte-ordainetik; eta beste 5.119,63 euro lurzoruaren balorazioarengatik erreklamatzeko dituen 102.392,69 euroko kalte-ordainetik.

Aintzat hartuta zer arautzen duten Lurzoruaren Legeko 1976ko Testu Bateginaren 102.2 artikulua eta Hirigintza Planeamenduko Erregelamenduko 98.3 artikulua, derrigorrezko desjabetzeen arauak aplikatuko zaie berrantolatzeei ordezko zuzenbide moduan, eta arau horien artean dago Derrigorrezko Desjabetzei buruzko Legeko (LEF) 47. artikulua. Arau horrek xedatzen du desjabetuari ordain dakiokela, balioespen edo balio justuz gain, ehuneko bost bat, afekzio-sari gisa.

Jurisprudentziak ezarritako doktrina ez zen uniforme izan Derrigorrezko Desjabetzei buruzko Legeko 47. artikulua arautzen duen afekzio-saria ondasunak behin betiko kentzea dakarten kalte-ordainetan ordaintzea bidezkoa den erabakitzeke garaian, baina Auzitegi Gorenak 1999ko maiatzaren 17an emandako epaiak (ED 1999/18582) jada finkatuta dagoen doktrina bat ezarri zuen, 2002ko ekainaren 3ko eta 2003ko martxoaren 15eko epaiak ildo horri jarraitu baitzioten. Hala dio epai horrek: “.. Sala honen doktrina da (1986ko azaroaren 7ko epaia -Aranzadi 6131- eta 1987ko maiatzaren 8koa -Aranzadi 3317), Legeak afekzio-saria aitortzen duela desjabetuak izan diren pertsonen

gogoz kontra utzi diotelako ondasunak haien ondarean eta edukitzepean izateari, baina ez du halakorik aitortzen ondasun jakin eta zehatz horien murrizpena edo kentzea ez dakarten gainerako kalte-ordainen kasuan; hori horrela, 1993ko maiatzaren 10ean (11.405/90 apelazio-errekurtsioa) eta 1994ko martxoaren 26an eman genituen epaietan (2.284/91 apelazio-errekurtsioa) adierazi izan dugu afekzio-saria soilik ordainduko zaiola desjabetuari jabetzaz edo edukitzaz gabetua izan den ondasun edo eskubideen balioarekiko edo balio justuarekiko, baina ez bere ondarean jarraituko duten ondasun edo eskubideei eragiten zaizkien kalte eta galerengatik hartzekoak izan ditzakeen gainerako kalte-ordainekiko”.

Horrenbestez, ezetsi egiten dugu inpugnazio-arrazoiak, berrantolatze-proiektua zuzenbidearen arabera baita: afekzio-eskubidea aitortzen du soilik lurzoruaren eta eraikuntzen gabetzearekin lotuta, baina ez etxebizitzaz aldaraztearengatik eta trasladoarengatik ematen diren kalte-ordainei lotuta”.

Ildo berari jarraitzen diote Auzitegi Gorenak, besteak beste, 2003ko apirilaren 9an, 2002ko urriaren 14an eta 2002ko martxoaren 26an emandako epaiak.

Horrenbestez, uste dugu zalantzarik gabekoa dela, Derrigorrezko Desjabetzei buruzko Legeko 47. artikulua eta Erregelamenduko 47. artikulua ordezko zuzenbide moduan aplikatuz, derrigorrezkoa dela kalte-ordainak afekzio-sariari dagokion %5ean handitzea berrantolatze-proiektuetan lurzoruarekin zerikusirik ez duten elementuei dagozkien kalte-ordainak.

Afekzio-sari hori ere aplikagarria izanen litzateke, baita ere, berdinbanaketaren sisteman aprobetxamenduekin gertatutako desorekak (goitik zein behetik) baloratzeko.

Agerikoa da, halaber, %5eko afekzio-saria desjabetze-prozeduretan aplikatzeko dela, Derrigorrezko Desjabetzei buruzko Legeko 47. artikulua eta Erregelamenduko 47. artikulua xedatzen duten moduan.

Finean, lurzati eraikigarriak UA-1 unitatean izan balira, lurzoruaren lekuan hirigintza-aprobetxamenduak erabakiko lirateke, banaketa egin ondorengo orubeak zehaztuz, eta eraikuntzak kalte-ordainduko lirateke, %5eko afekzio-saria erantsiz balorazioari.

Lurzati eraikigarriak, hirigintza-eremu horretatik kanpo izanda, desjabetu izan balira, balioespen edo balio justuak bere baitan hartuko litzuzke bai lurzoruaren eta bai eraikuntzen balorazioa, eta osoko zenbatekoari afekzio-sariari dagokion %5a aplikatuko litzaike.

HIRUGARRENA.- Afekzio-sariaren aplikazioaren balorazio juridikoa gure kasu honetan

Gure kasu honetan, adierazi dugun moduan, eragiketa guztiak (bi eraikinak ordezte, lurzorua urbanizatzea eta Udalari lagapenak egitea haiek jabari publikoan sartzeko) hirigintza-kudeaketako hitzarmen baten esparruan egiten dira, eta eragiketa horiek bat datoz denboran Alde Zaharreko Barne Erreformako Plan Bereziko UA-1 unitateko berrantolatze-proiektua izapidetu eta onartzeko jarduerekin.

Baziren UA-1 unitatean hirigintza-antolamenduz kanpo deklaraturako beste higiezin batzuk ere, baloratu edo kalte-ordaindu beharrekoak, eta, gainera, aintzat hartu behar da unitateetik kanpoko eraikinen hirigintza-operazioa ere UA-1 unitateko hirigintza-kudeaketako hitzarmenean sartzen zela. Hori guztia ikusita, normala da teknikoek, unitateetik kanpoko partzelen eta eraikuntzen balorazioa egitean, berrantolatze-proiektuei aplikatzekoak zaizkien lege-irizpideak aplikatzea (birjarpen-balioa, antzinatasunen eta zaintza-egoeraren arabera zuzendua) eta kalte-ordainari afekzio-sariari dagokion %5a aplikatzea. Izan ere, nabarmendu behar da balorazioak bereizi egiten dituela, bate-tik, eraikinak birjartzeko balioa, 274.439,18 eurokoa eta afekzio-sariari dagokion %5a aplikatu zai-ona, eta, bestetik, lurzoruaren balioa, 245.954,35 + 24.493,67 euroko balioa duena, eta, agerikoa denez, afekzio-saririk izan ez duena.

Horrenbestez, aintzat hartzen bada balorazioa, formalki, UA-1 unitatearen berrantolatze-proiektua- ren eremuan eginez gero, eraikuntzen balioa berdina izanen litzatekeela afekzio-sariari dagokion %5a barne eta, aitzitik, desjabetzearen bidetik jo izan balitz, eraikuntzen eta lurzoruaren balioa berdina izanen litzatekeela, baina lurzoruarekiko afekzio-sariari dagokion %5a gehituta, ikusten eta nabarmentzen dugu Udalak egindako jarduerak indarreko zuzenbidearen arabekoak direla eta ez diotela inolako kalterik eragin udalerraren interesei.

Adierazitako guztiari erreparatuta, beraz, ezin da esan hirigintza-jarduera hori salerosketa simple bat denik, hala izan balitz, alderdien borondatea, eta, batik bat, saltzailearen borondatea izanen baitzen balorazio-sistemaren oinarria. Hori horrela izanda, ordaindu den prezioa, handiagoa edo txiki-agoa finka zezakeen, inolako aipamenik egin gabe birjarpen-balioei, afekzio-sariei edo aprobetxamenduei.

Txosten hau egiten dut eta zuzenbide-oinarri sendoagoak izan ditzaketan txostenen mende jar-zen.

Héctor M. Nagore Sorabilla lizentziatua

COMPTOS GANBERAREN ERANTZUNA BURLATAKO UDALEKO ALKATEAK AURKEZTU ZITUEN ALEGAZIOEI

2010ko urtarrilaren 18an Burlatako Udaleko alkateak udal horretako 2008ko ekitaldiko kontuei buruz Comptos Ganberak eginiko behin-behineko fiskalizazio-txostenari aurkezturiko alegazioak aztertu ondoren, Comptos Ganberak honakoa zehaztu nahi du:

Lehena.- Udalak bere alegazioetan aurkeztu duen txosten juridikoaren esanetan, antolamendu juridikoaren arabera jarduera da, eta udal-interesei inolako kalterik egiten ez diona, 13.722 euro ordaintzea ehuneko %5eko "afekzio-sari" gisa, aztertutako hitzarmenaren bidez Burlatako Udalak eskuratu dituen bi partzeletan zeuden eraikinen birjarpen-balioarekiko. Txosten juridiko horrek onetsi egiten du, beraz, afekzio-sariaren kontzeptu hori jaso izana lurzati horien balorazio-txostenean; zehazki, hirigintza-eragiketaren hitzarmenari 2007an egin zitzaion gehigarri batean onartu zuen Udalak afekzio-sari hori gehitzea.

Bigarrena.- Comptos Ganbera honek, hala ere, uste du, txostenean adierazten duen moduan, udalarentzat ez zela, hitzarmen horren baitan (besteak beste, bi lurzati salerosketa hitzartu zituena), ez galdagarria eta ez derrigorrezkoa "afekzio-sari" hori ematea, nahiz eta, azkenean, hitzarmenak kontzeptu hori bere egin zuen, eranskin gisa jasotzen den balorazio-txosten teknikoan hala adierazi ondoren.

Hirugarrena.- Dena den, Comptos Ganbera honek uste du, Udalak bere alegazioekin batera aurkeztu duen txosten juridikoak berak adierazten duen moduan, hitzarmenaren bidez eskuratzen diren lurzati kokapena ikusita, jarduera logikoa hau izanen zela: Barne Erreformako Plan Berezia aldatu eta lurzati horiek UA-1 exekuzio-unitatean sartzeko. Horrela jokatu izan balitz, lurzati horiek berrantolatzeari eta kostuak jabe guztien artean berdinbanatzeari ekingo zitzaion, legeak arautzen duen moduan. Barne Erreformako Plan Berezia aldatuko ez balitz, hirigintza-jarduketa horren onura publikoa edo interes soziala deklaratu behar zen, eta derrigorrean desjabetu lurzati horiek.

Horiek dira indarreko legediak jarduketa-mota horietarako arautzen dituen prozedura arruntak, eta, prozedura horiek bete izan balira, lurzoru eskuratzeko hirigintza-hitzarmen horren bidez betetako prozedura baino jardunbide gardenagoa eta efizienteagoa egingen zuen Burlatako Udalak.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzearen gaineko azterlanari buruzko lan-taldearen txostena

HERRI LAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko 113.1 artikuluan xedatua betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzearen gaineko azterlanari buruzko lan-taldearen txostena, Nafarroako Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak 2010eko maiatzaren 28an onetsia.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 31n.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzearen gaineko azterlanari buruzko lan-taldearen txostena

Nafarroako Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeko Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzearen gaineko azterlanari buruzko lan-taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 55.2 artikuluan eta lan-taldea eratzeko erabakiko 3. atalean xedatua betez, Batzordeari eta Legebiltzarreko Mahaiari igorri die ondoko

TXOSTENA

AURREKARIAK

1. Nafarroako Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak 2009ko maiatzaren 19an erabaki zuen, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak proposatuta, bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzearen gaineko azterlanari buruzko lan-taldea eratzea. Erabakia 2009ko maiatzaren 26ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Lan-taldea 2009ko ekainaren 10ean eratu zen, eta ondoko kideak izan ditu, Legebiltzarreko parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkar-teek izendatuta: Luis M.^a Valero Erro jauna (UPN), Aitor Etxarri Pellejero jauna (NABAI), José María Vázquez Royo jauna (SPN), José Andrés Burguete Torres jauna (CDN) eta Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB). Lan-taldeak Legebiltzarreko legelari Silvia Doménech Alegre andrearen laguntza jaso du.

Lan-taldea eratzeko bilkura hartan José María Vázquez Royo jauna hautatu zen lehendakari, eta

barne funtzionamenduari buruzko arauak onetsi ziren. Arauak 2009ko ekainaren 23ko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

3. Lan-taldeko kideek arloko erakundeen, adituen eta eragileen laguntza eta lankidetzeta jaso dute, eta eskerrak eman nahi dizkie parte hartu eta laguntza eman izana, bai agerraldiak egiteagatik bai ekarri duten dokumentazioarengatik, behar bezala aztertu baita.

Lan-taldean ondoko adituak eta eragileak izan dira:

– Vicente López Holgado jauna, Probintziako trafikoko burua

– Mario Zunzarren Angoz, Foruzaingoko komisario nagusia

– José Antonio Marcen Zunzarren jauna, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuko burua

– Amaya Ruiz Irurita andrea, ingeniaria

– Maribel Gómez Jiménez andrea, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroko energia, mugikortasun eta klima-aldaketako teknikaria eta arkitektoa

– Fermín Cabasés jauna, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko teknikaria

– José Félix Santesteban Goñi jauna, Nafarroako Txirrindularitza Federazioko lehendakaria

– Jesús Jiménez Villa jauna, denentzako txirrindularitza eta zikloturismo alorreko arduraduna, Nafarroako Txirrindularitza Federaziokoa

– Jorge Sanz Unzué, Nafarroako Txirrindularitza Federazioko zuzendari teknikoa

– Gabriel Silva Uribarri jauna, bide, ubide eta portuetako ingeniaria

– Fermín Larequi Gaspar jauna, txirrindularitzaren arloko profesionala

– Jon Bru Pascal jauna, txirrindularitzaren arloko profesionala

– Agustín Planillo Tomás jauna, txirrindularitzaren arloko profesionala

– Pruden Indurain jauna, txirrindularitzaren arloko profesionala

– Ignacio Arbeloa Freire, Nafarroako Kirolaren Institutua

– José Ignacio Sanz, Bizikletaren Plan Zuzendariaren koordinatzailea

– Eduardo Nascués Santos, Nafarroako Ekologistak Martxan

– Antonio Peña de Marcos jauna, Corellako Biziklistak (CONBICI)

– Eduardo Orbaiceta jauna, Conor-eko salmenta eta marketin zuzendaria

4. Zenbait bilera egin ondoren, lan-taldeak honako txosten hau onetsi du 2010eko apirilaren 26ko bilkuran.

5. Azkenik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan-taldeak erabaki zuen Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea lan-taldeak bere lana amaitu zuela, Mahaiak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeari dei egin ziezaion, txosten honetan onetsiriko proposamenak eztabaidatzeko.

6. Proposamenak Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Nafarroako Gobernuko ondoko departamentuei igorriko zaizkie: Presidencia, Justicia e Interior, Administración Local, Desarrollo Rural y Medio Ambiente, Obras Públicas, Transportes y Comunicaciones y Vivienda y Ordenación del Territorio.

PROPOSAMENAK

1. Informazio eta kontzientziazio kanpainak egin, gidariei nahiz txirrindulariei zuzenduak, zirkulazio kodearen interpretazioari eta trafiko arauetan aldiro egiten diren gaurkotzei buruz.

2. Nabarmen hobetzea txirrindulariek erabiltzen dituzten errepideetako bide-seinaleak, bertan txirrindulariak egon daitezkeela iragartzeko seinale berariazkoak jarrita. Horretarako, kontuan hartuko da Nafarroako Txirrindularitza Federazioak eginiko txostena.

3. Foru Komunitateko errepideen mantentze-eta kontserbazio-lanen kontratuetan espresuki exijitu beharko da bazterbideen garbiketa, txirrindularien errodadurako bideko funtsezko zati diren aldetik.

4. Errepide berriak eraikitzeke edo daudenetan berrikuntza-lan handiak egiteko proiektuetan eza-

rriko da bazterbideek ondotik zehazten diren ezau-garriak izanen dituztela, eta kontuan hartuko dira, ahal den neurrian, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak bidegorriei buruz egindako gomendioak:

- Interes orokorreko sarea – 2,5 metro bi norabideetan.

- Komunitatearen intereseko sarea – 1,5 metro bi norabideetan.

- Tokiko sarea – 1 metro bi norabideetan.

5. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Bide Segurtasunaren Atalari esleitzea txirrindulariek erabili beharreko errepideen kontrolaren ardura; atal horren ardura izanen da txirrindulariei buruzko seinalizazio egokia egotea, errepideen eta bazterbideen garbiketa, bidegurutzei buruzko azterlan berariazkoak egitea, txirrindularientzako oztopoak kentzea eta bazter-babesak kontrolatzea eta egokitzea.

6. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzea, udalen hirigintza planetan derrigorrez jaso dadin bidegorriak egin beharra, oinezkoen nahiz txirrindularien mugikortasuna eta segurtasuna eta Nafarroako errepideekiko komunikazioa errazte aldera herrietan.

7. Tokiko administrazioak premiatzea, nork bere eskumenen esparruan, udal ordenantzetan jaso dezaten bidegorriak egitea, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren gomendioei jarraikiz, bai eta bizikletentzako aparkalekuak ere herrietako jardueraguneetan, Nafarroako herrietan mailegu-prozedurak baliatuta bizikletak erabiltzea sustatzeko.

8. Toki Administrazioako Departamentua premiatzea bidegorriak eta aparkalekuak egiteko jarduerak diruz lagun ditzan lau urterako planetako jarduketa programetan.

9. Administrazio publikoak premiatzea aukera eman dezaten bere eskumeneko garraibide publikoetan bizikletak sartzeko.

10. Bizikletek erabili ahal izateko leheneratzea eta egokitzea abelbideak, bideak, bidezidorrak eta bide berdeak, Lurralde Antolamenduko Planetako azterlanen edukiarekin bat.

11. Egutegi bat ezartzea, Foru Komunitatearen ahalmen ekonomiko errealararekin bat, Bizikletaren Plan Zuzendaria onetsi, garatu eta betetzeko.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an.

Lan-taldeko lehendakaria: José María Vázquez Royo

Euskararen normalizaziorako lan-talde bat sortzeko proposamena.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

2010eko azaroaren 23an, Hezkuntza Batzordeak baztertu egin zuen Nafarroa Bai parlamentu-taldeak euskararen normalizaziorako lan-talde bat sortzeko eginiko proposamena.

Iruñean, 2010eko ekainaren 24an.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda
